

5. jardueraren behin betiko bertsioa, 2. Blokea - Ana Isabel García Espina

Utzi Gidatzen



Etapa: 12 - 15 urte artean.



Zailtasun-maila: ertaina



2 kide



Denboralizazioa: saio



Etiketak:

Zibersegurtasuna, zibersegurtasunean adituak diren erakundeak, gazteen eta familien babesa, ziberjazarpena

Jardueraren deskripzioa:

Jarduera honen bidez, ikasleei aukera eman nahi zaie haien herrialdean gazteak eta familiak ziberjazarpenaren aurka babesteaz arduratzen diren erakundeak ezagutzeko. Proiektuko kide diren herrialdeetan zer egiten den alderatzea. Azkenik, informazio hori hezkuntza-komunitate osoan jakitera eman nahi da.

Helburuak: (3 gehienez)

1. Jakitea zein erakunde arduratzen diren haien herrialdean gazteak eta familiak ziberjazarpenaren aurka babesteaz
2. Jakitea zein erakunde arduratzen diren herrialde kidean gazteak eta familiak ziberjazarpenaren aurka babesteaz
3. Informazio hori hezkuntza-komunitate osoan jakitera ematea.

Gako konpetentziak eta zeharkako gaiak:

- Hizkuntza-komunikazioa
- Konpetentzia eta segurtasun digitala
- Konpetentzia sozial eta zibikoak
- Komunikabideetarako heziketa
- Kontsumitzailearen (eta erabiltzailearen) heziketa

Curriculumeko edukiak:

- Irakurriaren gaineko ulermena eta idatzizko adierazpena
- Webgunea informazioa bilatzeko erabiltzea
- Aurkezpenak, kontzeptu-mapak, dibulgaziozko posterrak prestatzea



Inklusio-alderdiak:

Zereginak antolatzerakoan, ikasle bakoitzaren ezaugarri indibidualak hartuko dira kontuan, eta guztiek egin ditzaketela ziurtatuko da. Sormenaren atalean, proposamen guztiak balioetsi eta kontuan hartuko dira.

Aurreikusitako produktuak/ emaitzak:

Dibulgaziozko posterra, triptikoa, kontzeptu-mapa edo antzekoren bat, ziberjazarpenik jasanez gero ikasleek zer egin dezaketen jakitera emateko.

JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hainbat etapatan antolatuko da.

1. urratsa

Proiektuan parte hartuko duen ikastetxeetako irakasleek ikasleak talde nazionaletan eta internazionaletan nola taldekatu adostuko dute. Talde bakoitzeko kideekin taula bat prestatu eta TwinSpace-n horretarako berariaz sortuko duten orrialdera igoko dute.

Ekipoak	Ikaslea 1 herrialdea	Ikaslea 2 herrialdea
---------	-------------------------	-------------------------

1	Ikaslea_1_1	Ikaslea_2_1
2	Ikaslea_1_2	Ikaslea_2_2
3	Ikaslea_1_3	Ikaslea_2_3




Twinspace-n [orrialdea sortzea](#):

2. urratsa

Bi herrialdeetako irakasleak koordinatuko dira ikasleei 3. urratsean eskatuko zaien informazioa bilatzen laguntzeko hainbat gida-galdera prestatze aldera. Asmoa da parte hartuko duten herrialde guztietan erraz aldera daitekeen informazioa lortzea.

Irakasleek emaila edo beste edozein komunikabide erabiliko dute elkarrekin koordinatzeko.



1. irudia_twinmail

3. urratsa

Banakako jarduera. Ikastetxe bakoitzean, ikasleek saio pare bat eskainiko dizkiote jakiteari zer erakunde dauden beren herrialdean eta autonomia-erkidegoan gazteak eta familiak ziberjazarpenaren aurka informatzeko eta babesteko (Espainian, adibidez, [INCIBE](https://www.incibe.es/) <<https://www.incibe.es/>> dugu, besteak beste).

Ikasleek beren funtzionamenduari, telefonoei, harremanetarako beste bide batzuei eta gainerako alderdi interesgarriei buruzko oharra hartu eta irakasleek aldeztu aurretik emandako galderei erantzuten saiatuko dira. Galdera horiek berberak izango dira proiektuan parte hartzen duten herrialde guztientzat.




2. irudia_informazioa bilatzen

4. urratsa

Ekipo nazionalak.- Ikastalde bakoitzean, ikasleek Interneten topatu duten informazioa partekatuko dute eta ikaskideek ulertzeko moduko formatu erraz batean nola aurkeztu erabakiko dute, kontzeptu-mapak erabiliz (paperean eginak zein digitalak).

Digitalak egitea erabakiz gero, [mindmup](https://www.mindmup.com/) edo antzeko tresnaren bat erabil dezakete <
<https://www.mindmup.com/>>.



3. irudia_mindmup-ekin eskema eginez

5. urratsa

Irakasleek Foro bat sortuko dute jardueraren izenburuarekin, eta eztabaida-hari bat irekiko dute nazioarteko ekipo bakoitzarentzat.



Tutoriala: [Nola sortu hariak foroan:](#)

6. urratsa

Urratsa honetarako 2 edo 3 saio behar dira



4. irudia- nazioarteko ekipoetan lan eginez

Nazioarteko ekipoak- Talde bakoitzeko ikasleek lortutako eta eskemetan islatutako informazioa foroan partekatuko dute; herrialde bakoitzean gazteak eta familiak babesteko zein

erakunde eta sistema erabiltzen diren alderatuko dute, zer funtzionamendu-sistema duten, zer harreman-bide eskaintzen dituzten, etab.

Déjate Guiar

Sigue las indicaciones para compartir con tus compañeros de equipo la información que has preparado en clase.

equipo 1

5. irudia_foroa

Erakunde horiek bi herrialdeetan duten funtzionamendua alderatu eta gero, nazioarteko talde bakoitzeko kideek informazio hori gainerako hezkuntza-komunitateari nola jakinarazi aztertuko dute (adibidez, dibulgaziozko posterrak, ikastetxearen webgunearen bidez erraz parteka daitezkeenak eta paperean, oholetan eta ikasgeletan zintzilika daitezkeenak).

Lortutako informazioan hobekuntza-proposamenak gehituko dituzte, gehienbat haien ikastetxeetan pentsatuta.

Canva, Sway, Adobe Spark edo antzekoren bat erabil dezakete.



Canva < https://www.canva.com/es_es/> ,

Adobe spark < <https://www.adobe.com/es/products/spark.html> > ,

Sway <<https://sway.office.com>>

OHARRA: Ikasleen trebetasunaren arabera, irakasleek zer tresna erabili proposa dezakete eta tutorial bat eman. Horretarako, orrialde bat sor dezakete, “Tresna digitalak” edo antzeko izenbururen batekin.

7. urratsa

Irakasle batek orrialde bat sortuko du jardueraren izenarekin eta TwinBoard bat gehituko dute

Ikasleek dibulgaziozko posterrak TwinBoard-era igoko dituzte, zenbakituta.

8. urratsa

Ikasleek ikaskideek egindako posterrak berrikusiko dituzte, eta bozketa bidez ikastetxearen webgunean zein partekatu nahi duten eta ikastetxean zintzilikatzeko zein inprimatu nahi duten aukeratuko dute.



TwinSpace-ko “poll-a” erabil dezakete, office 365 - [forms](https://www.microsoft.com/es-es/microsoft-365/online-surveys-polls-quizzes) <https://www.microsoft.com/es-es/microsoft-365/online-surveys-polls-quizzes> edo antzekoren bat

Déjate Guiar

6. irudia_TwinBoard-a eta

inkesta dituen orrialdea

9. urratsa

Ikastetxe bakoitzean, talde guztiek ziberjazarpenaren aurka borrokatzeko pentsatu dituen proposamen guztiak jasoko dituzte ikasleek. Zuzendaritza-taldearekin bilera bat antolatuko dute. Proposamenak zuzendaritza-taldeari nola aurkeztu adostuko dute. Hainbat modutan egin dezakete, ikastetxe-motaren, inplikaturako ikasle-kopuruaren eta zuzendaritza-taldearen inplikazioaren arabera, baina horietako batek bilera grabatzeaz arduratu beharko du, gero nazioarteko ikaskideekin partekatu ahal izateko, eta grabazioa TwinBoard-era eta institutuaren webgunera igoko du.



7. irudia_elkarrizketa zuzendaritza-taldearekin

10. urratsa

Jarduerari amaiera emateko, bideokonferentzia bat antolatuko da. Irakasleek galdera batzuk prestatuko dituzte eta parte-hartzeak antolatuko dituzte ikasleek ikasi dutenaz hitz egin eta komenta dezaten.

Oharra: Bideokonferentzia TwinSpace-n programatuko da, baina azken orduan arazorik balego, beste konponbide edo aukera bat izatea komeni da. Gainerako kideekin hitz egin daiteke eta beste plataforma bat adostu (Hangouts, Google meet, Jitsi, edo antzekoren bat).



Tutoriala: Nola [programatu bideokonferentzia bat](#) Twinspace-n:



8. irudia- bideokonferentzia

11. urratsa

Autoebaluazioa eta koebaluazioa. Ikasle bakoitzak bere autoebaluazio-fitxa osatuko du (proiektuko kide guztientzat balioko duen eredu bat sortuko da), bai eta jarduera kolaboratiboetarako sortutako koebaluazio-fitxa ere.

Autoebaluazio-fitxaren eredua:

Jarduera	Erabilitako tresna	Data	Ongi egin nuen, pozik nago	Egin nuen. Hala-hola dago	Egin nuen, baina ez dago oso ongi	Oraindik ez dut bukatu	Egin gabe



*Prozesu osoan zehar, irakasleek ikuskatu eta aholkatu egingo dute, baina ikasleei jarduerak eskatzen duen sormen-askatasuna emango diete.



. TwinSpace-ko tresnak / kanpoko 2.0 tresnak:



Twinspace: TwinBoard, Materialak, Foroa, TwinMail

Kanpoko 2.0 tresnak

- [Canva](#)
- [Sway](#)
- [Adobe spark](#)
- [mindmup](#)
- [forms](#)